





IGORREKO ESKOLA AGENDA 21 2008-2009 IKASTURTEA



HERRIKO DIAGNOSTIKOA. KONTSUMO ARDURATSUA.

0. SARRERA. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA	3
1. ATALA. EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA IGORREKO UDALETXEAN	4
1.1. Igorreko udalak iraunkortasunarekiko duen konpromisoa.....	5
1.2. Erosketa eta kontratazioa antolatzeko modua udalean.....	6
1.3. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen politika udalean.....	7
1.4. EKPB ekintza plana /estrategia udalean	8
1.5. Erosketez eta kontratazioez arduratzen diren langileen prestakuntza.....	9
1.6. Langileei emaniko informazioa (ohiturak aldatzeko).....	10
1.7. Produktuetarako eta /edo zerbitzuentzat ingurumen irizpideak....	12
1.8. Emaitzak zein adierazleak neurtzea	15
1.9. Hornitzaileen katea kudeatzeko modua.....	16
1.10. Beste administrazio publiko eta erakunde batzuekin lan egitea eta lankidetzan aritzea, sareen bitartez EKPB sustatzeko.....	17
2. ATALA. NOLA IKUSTEN DUTE HERRIA IKASLEEK? IBILBIDEA.	19
 Eskola inguruko argiteria	20
 Eskola atzetik polikiroldegira. Hondakinak.....	20
 Eskolatik ibaira. Ura-ibaia	20
 Zubi inguruan. Lurraren erabilera	22
3. ATALA. IGORREKO BIZTANLERIAREN KONTSUMO OHITURAK. HERRITARREI GALDETEGIA.	23
3.1. Elikaduraren inguruan	24
3.2. Erosketen inguruan.....	24
3.3. Eskura dagoen informazioa	25
3.4. Ohituren aldaketa.....	27

0. **SARRERA. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA**

08-09 ikasturtean, Eskola Agenda 21aren barnean Igorreko Inazio Zubizarreta eta Institutuan lantzen ari diren gaia **KONTSUMO IRAUNKORRAREN** gaia da. Gai horrekin erlazionaturik, herriaren diagnostiko bat egin da, bertan kontsumoarekin lotura oso estua daukaten alorrak aztertu direlarik. Konkretuki diagnosi hau egiterako garaian hiru atal ezberdin aztertu dira:

- 1. *Atala: Erosketa eta kontratazio publiko berdea Igorreko Udaletxean.*
- 2. *Atala: Nola ikusten dute herria ikasleek? Herritik ibilbidea*
- 3. *Atala: Zein da Igorreko biztanleek dituzten kontsumo ohiturak? Herritarrei galdetegia.*

Ondoren atalez atal, lanaren emaitzak aurkeztuko ditugu:

1. ATALA. EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA IGORREKO UDALETXEAN

Udalaren funtzionamenduan kontsumo jasangarri irizpideak jarraitzea beharrezkoa da, Bere funtzioak direla eta, Udala, administratzaile gisa, eraginkortasunez gastatu behar duelako, Udala, eredu-emaile gisa, beste kontsumitzaile batzuentzat eredugarri delako eta Udala sustatzaile gisa, produktoreen bultzatzaile izan daitekeelako. Zentzu honetan, bi kontzeptu etortzen zaizkigu burura:

1. Udala eguneroko funtzionamenduan hainbat gauzen kontsumitzailea da: papera, ura, energia, e.a.,
2. Udala kontsumitzaile bezala, erosketak egiterako garaian lehen aipaturiko funtzio hori dela eta, era arduratsu ea eraginkor batean gastatu behar du, beti ere ingurumenaren errespetua aintzat harturik.

Horren harira dator **erosketa publiko berdearen kontzeptua**.

Erosketa publiko berdea edo jasangarria (EKPB) (etiko, arduratsu, ekologiko edo ingurumenarekiko zuzen ere deitzen zaio) administrazioak ondasunak erosi edo zerbitzuak kontratatu behar dituenean produktuak edo hornitzaileak aukeratzeko orduan ingurumen irizpideak (esaterako, baliabideen kontsumoa edo sortzen diren hondakinak gutxitzea) edo gizarte irizpideak (lan baldintza duinak) aintzat hartzea da.

EAE mailan Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburu bat eginda dago.

Gida egiteko EAEko administrazio publikoetako eragile ezberdinek hartu zuten parte: Foru Aldundiak, hiriburuak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerrri.

Prozesu horren ondorioz, aurrerapen gisa, 10 adierazle kalkulatu ziren. Adierazle horiei esker erakunde bakoitzaren abiapuntua zein den ikus daiteke eta, bestalde, epe laburreko eta ertaineko helburuak definitu. Aurrerapenerako adierazleek honako alderdi hauek hartzen dituzte kontuan:

1. Iraunkortasunarekiko konpromisoa dagoen ala ez.
2. Erosketa eta kontratazioa antolatzeko modua.
3. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen politikak zein maila daukan.
4. Ekintza plana / Estrategia zehatzen bat badagoen.
5. Erosketez eta kontratazioez arduratzen diren langileen prestakuntza maila.
6. Langileei emaniko informazio maila (ohiturak aldatzeko).
7. Produktuetarako eta/edo zerbitzuetarako ingurumen irizpideen maila.
8. Emaizak zein adierazleak neurtzea eta berrikusteren diren edo ez.
9. Hornitzaileen katea kudeatzeko modua.
10. Beste administrazio publiko eta erakunde batzuekin lan egitea eta lankidetzan aritzea, sareen bitartez EKPB sustatzeko.

Elementu bakoitzeko, **lau maila zehaztu dira**, administrazioan EKPBrik ez edukitzetik bikaina edukitzera bitartekoak.

Gida horretako adierazleak aintzat harturik, **galdetegi bat egin zaio Igorreko Udalari**, ondoren, gidaren gauzatzean parte hartu duten EAeko beste udalerrien batz bestearekin alderatzeko. Honela Igorreko Udala zein egoeratan aurkitzen den jakin ahal izango dugu.


Goazen beraz Igorreko Udalaren erantzunak azaltzera, grisez azpimarraturik aurkitzen dira:

1.1. Igorreko udalak iraunkortasunarekiko duen konpromisoa

Igorreko Udalaren abiapuntua oso ona da, Foru Aldundia, hiriburu eta Ekitaldean parte hartu duten udalerrien batez esteko abiapuntuarekin alderatuz. Igorre 2. mailan aurkitzen da jada eta hau da Foru Aldundia eta hiriburuen helburua 2008rako eta baita Ekitaldean parte hartu duten udalerrien helburua ere.

0 maila:	Ez dago iraunkortasunaren aldeko konpromisorik.
1. maila: oinarrizkoa	Iraunkortasunaren aldeko oinarrizko konpromisoa dago. Iraunkortasuna teknikari baten edota proiektuen koordinatzaile baten esku dago, baina apenas du baliabide ekonomikorik.
2. maila: aurreratua	Iraunkortasuna lehentasunezko gaia da arduradun politikoentzat eta zuzendaritzarentzat. Sailen arteko lantalde bat arduratzen da iraunkortasunarekin loturiko gaiak lantzeaz, baina baliabide ekonomiko mugatuak ditu. Iraunkortasuna erakundearen jardura batzuetan dago txertatuta.
3. maila: bikaina	Iraunkortasuna lehentasunezko gaia da arduradun politikoentzat eta zuzendaritzarentzat. Sailen arteko lantalde bat arduratzen da iraunkortasunarekin loturiko gaiak lantzeaz, eta behar adina baliabide ekonomiko ditu. Iraunkortasuna erakundearen jardura guztietan dago txertatuta.

Igorreko Udalaren erantzuna




1.2. Erosketa eta kontratazioa antolatzeko modua udalean

Igorreko Udalak ez dauka kontrataziorako prozedura estandarizaturik, ez eta kontrolik edo ikuskapenik ere. Egoera berdina da, Foru Aldundiena, hiriburuena eta ekitaldean parte hartu duten udalerriena ere.

0 maila:	Ez dago prozedura estandarizaturik, ezta EKPbN eskarmenturik ere.
1. maila: oinarrizkoa	Ez dago kontratazioarako prozedura estandarizaturik, ez eta kontrolik edo ikuskapenik ere. Kasu zehatz batzuetan bakarrik ezartzen da EKPb.
2. maila: aurreratua	Kontratatzeko prozedura estandarizatuak, kontratazioan espezializatutako langileak eta ingurumen arloan adituak diren teknikariak daude. Erosketen zerbitzu zentralak aldian behin ikuskatzen eta kontrolatzen du EKPb.
3. maila: bikaina	Ingurumen arloan adituak diren teknikariek erosketa eta kontratazio jarduera guztietan hartzen dute parte. Erosketen zerbitzu zentralak aldian behin ikuskatzen eta kontrolatzen du EKPb. Beste erakunde batzuek horren inguruan egiten dutena aztertzen da (benchmarking).

Igorreko Udalaren erantzuna




1.3. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen politika udalean

Igorreko Udala 1. mailan aurkitzen da, EKPb bultzatzeko konpromiso politiko orokorra dagoen arren, ez dago ekintza plan zehatzik (helburu zehatzak definitu gabe daude, emaitzak ez dira neurtzen...). Foro Aldundia eta hiriburuen pareko dago zentzu horretan eta Ekitaldeko udalerrien batez bestearen gainetik.

0 maila:	Ez dago Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea bultzatzeko inolako konpromisorik.
----------	--

1. maila: oinarrizkoa	EKPB bultzatzeko konpromiso politikoa orokorra dago, baina ekintza planik ez (helburu zehatzak definitu gabe daude, emaitzak ez dira neurtzen...).
2. maila: aurreratua	EKPB bultzatzeko konpromiso argia dago, eta ekintza planik ere bada. Plan horretan produktu taldeentzako helburu zehatzak biltzen dira, eskaintzari eta beste eragile batzuei dagokienez egin beharreko lanak, langileentzako prestakuntza eta informazioa, emaitzen neurketa, etab. Politikariek eta zuzendariak ez dute EKPB elementu estrategiko gisa ikusten. Erakundearen barruan ematen dute horren berri, baina kanpoan ez.
3. maila: bikaina	EKPB bultzatzeko konpromiso argia dago, eta ekintza planik ere bada. Plan horretan produktu taldeentzako helburu zehatzak biltzen dira, eskaintzari eta beste eragile batzuei dagokienez egin beharreko lanak, langileentzako prestakuntza eta informazioa, emaitzen neurketa, etab. Politikariek eta zuzendariak elementu estrategikotzat hartzen dute EKPB. Erakundeak kideei, hornitzaileei eta jendeari oro har ematen zaio horren berri.

Igorreko Udalaren erantzuna




1.4. EKPB ekintza plana /estrategia udalean

Igorreko Udalean ez dago Erosketa eta kontratazio publikoaren inguruko inolako ekintza plan edo estrategia zehatzik. Foro Aldundia eta hiriburuen egoera zertxobait

hobeagoa da, hala ere oinarritzko mailan aurkitzen dira, eta Ekitaldeko beste udalerrien egoera Igorreko egoeraren berdina da.

0 maila:	Ez dago inolako ekintza planik.
1. maila: oinarritzkoa	EKPBren oinarritzko ekintza plana onartuta dago. Ekintzak barrurako dira batez ere (langileentzako informazioa). Ingurumen irizpideak kontratazio batean edo bitan ezarri dira.
2. maila: aurreratua	Ekintza planak xehetasunez aurreikusten du kontratazioa. Ingurumen eraginik eta kontratazio bolumenik handiena duten produktu taldeen ingurumen irizpideak definitu dira. Ez dira erantzukizunak eta ezartzeko epeak zehaztu.
3. maila: bikaina	Erantzukizunak eta ezartzeko epeak zehaztuta daude. Ekintza plana barruko beste estrategia batzuetan txertatuta dago. Sistematikoki ebaluatzen dira kontratazioan ingurumen irizpideak txertatzeko aukerak, eta espezifikazio teknikoetan daude jasota. Ereduzko pleguetan ingurumen klausulak daude sartuta (kaudimena, gauzatzea, esleipena).

Igorreko Udalaren erantzuna





1.5. Erosketez eta kontratazioez arduratzen diren langileen prestakuntza

Igorreko Udalean kontratazioaz eta/edo erosketaz arduratzen diren langileei ez zaie EKPBren arloko inolako prestakuntzarik ematen, berdina gertatu da Ekitaldean parte hartu zuten beste udalerriekin eta planteatzen den helburua 2 mailara pasatzea izango

litzake, hau da, kontratazioan diharduten pertsona guztiek EKPBren arloko oinarrizko prestakuntza jasotzea.

0 maila:	Kontratazioaz eta/edo erosketaz arduratzen diren langileei ez zaie EKPBren arloko inolako prestakuntzarik ematen.
1. maila: oinarrizkoa	EKPB prozesuan funtsezkoak diren pertsonak kontratazioan ingurumen irizpideak txertatzeko oinarrizko prestakuntza jaso dute.
2. maila: aurreratua	Kontratazioan diharduten pertsona guztiek EKPBren arloko oinarrizko prestakuntza jaso dute. Funtsezko pertsonak produktu talde jakin batzuei buruzko prestakuntza jaso dute (ingurumen eragin handiena eta kontratazio bolumen handiena duten produktuei buruzkoa).
3. maila: bikaina	Langileen etengabeko prestakuntzarako programetan EKPBri buruzko prestakuntza ematen da. Langile berriei EKPBri buruzko oinarrizko prestakuntza ematen zaie. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea funtsezkoak dira erosketako langileak kontratatzeke orduan.




1.6. Langileei emaniko informazioa (ohiturak aldatzeko)

Igorreko Udalaren egoera zertxobait txarragoa da Foru Aldundia, hiriburu eta Ekitaldean parte hartutako udalerrien abiapuntuarekin alderatuz, hauetan ematen du

langileak ingurumen arloan sentsibilizatzeko/informatzeko zenbait kanpaina egin dituztela. 2008rako planteatzen duten helburua langileei EKPBrekin loturiko ingurumen gaiei buruzko informazioa emateko oinarrizko kanpaina egitea da (artikuluak barne aldizkarian, oinarrizko informazioa intraneten).


0 maila:	Ez da langileak ingurumen arloan sentsibilizatzeko/informatzeko inolako kanpainarik eginen.
1. maila: oinarrizkoa	Langileei EKPBrekin loturiko ingurumen gaiei buruzko informazioa emateko oinarrizko kanpaina bat egin da (artikuluak barne aldizkarian, oinarrizko informazioa intraneten), baina modu isolatuan.
2. maila: aurreratua	Sarritan ematen da EKPBrekin loturiko ingurumen gaiei buruzko informazioa (aldizkarian atal finko bat, intranet); besteak beste, kontsumo ohiturak aldatzeko jardunbide egokiei buruzkoa. Langile guztiak informatzeko saioen bat antolatu dute.
3. maila: bikaina	Eremu jakin batzuetan kontsumitzeko ohiturak aldatzen laguntzeko baliabideak edo berariazko kanpainak antolatzen dira. EKPBri eskainitako Interneteko atari bat dago (erakundearena edota beste administrazio batzuekin partekaturikoa). Sarritan izaten dira langileei informazioa helarazteko saioak. Langile guztiei ematen zaie ohiturak aldatzeari buruzko oinarrizko informazioa.



1.7. Produktuetarako eta /edo zerbitzuentzat ingurumen irizpideak

Igorre 1 . mailan aurkitzen da, hau da, produktuetarako eta /edo zerbitzuentzat ingurumen oinarritzko irizpideak finkatu dira funtsezko bizpahiru produktu talderentzat.

0 maila:	Ez dago inongo produktu/zerbitzu talderentzako ingurumen irizpiderik
1. maila: oinarritzkoa	Oinarritzko irizpideak finkatu dira funtsezko bizpahiru produktu talderentzat.
2. maila: aurreratua	Produktu/zerbitzu garrantzitsuentzat finkatu dira ingurumen irizpideak, maila ezberdinekin (oinarritzkoa/aurreratua/ berritzailea). Irizpideak langile guztientzat daude eskuragarri. Irizpideak erabiltzea ez da nahitaezkoa.
3. maila: bikaina	Ingurumen eragina duten produktu/zerbitzu guztientzat finkatu dira ingurumen irizpideak (irizpide sozialak ere erants daitezke). Kontratazio arduradunek nahitaez aplikatu behar dituzte irizpideak. Ereduzko administrazio pleguek ingurumen irizpideak dauzkate txertatuta.



Gai honen harira Igorreko Udalak zera erantzun du:

1.7.1. Ondoren aipatutako produktu eta/edo zerbitzuak erosi eta/edo kontratatzerako garaian iraunkortasun irizpiderik jarraitzen du Udalak?

	BAI	EZ	BATZUTAN
Papera			
Bulegoko materiala			
Ekipo informatikoak			
Bulegoko altzariak			
Eraikinak garbitzeko zerbitzuak			
Ibilgailuak			
Jardueren antolaketa: mintegiak, tailerrak, bilerak, biltzarrak, hitzaldiak, e.a.			
Lorezaintza zerbitzua			
Energia berriztagarriak			
Hirigintza			

1.7.2. Paperaren kasuan honako neurriak hartzen dira?

	BAI	EZ	BATZUTAN
PAPERAREN EROSKETAN ZERA HARTZEN DA KONTUTAN:			
Papera birziklatua izatea			
Ingurumen ziurtagiria izatea			
Inprimaketa makinetan ondo funtzionatzea			
Iraunkorra izatea dokumentuak kontserbatzeko			
PAPERAREN KONTSUMOA MURRIZTEKO NEURRIAK HARTZEN DIRA:			
Dokumentuak bi aurpegietan fotokopiatu eta inprimatzen dira			
Alde bakar batetik idatzitako edo inprimatutako orriak berriz erabiltzen dira zirriborroetarako			
Dokumentu elektronikoen erabilpena udal barne komunikazioetarako			
Prestakuntza eta sentsibilizazioa			
ERABILTZEN EZ DIREN PAPER HONDAKINEN KUDEAKETA EGITEN DA:			
Lan mahaietan papera jasotzeko erretiluak daude,edo/eta inprimagailu zein fotokopien alboan.			
Hautatze bidezko barne bilketarako sistema koordinatzen da garbiketako langileekin?udal langileek egindako hautatze bidezko bilketari euts diezaioten garbiketako langileak?			
URTEKO PAPER KONTSUMOA KALKULATZEN DA (erantzuna BAI bada, zenbatekoa da urtean kontsumitutako paper kantitatea?)			

1.7.3. Ekipo informatikoen kasuan honako neurriak hartzen al dira? (ordenagailu pertsonal integratuak sistema unitateak (PUZ) eta ordenagailu eramangarriak, pantailak, inprimagailuak, faxak, eskanerrak eta funtzio anitzeko ekipamenduak: inpresio funtzioa eskaneatzeko/kopiatzeko eta/edo faxeatzeko funtzioarekin konbinatutako ekipamenduak dira)


	BAI	EZ	BATZUTAN
EKIPO INFORMATIKOEN EROSKETAN ZERA HARTZEN DA KONTUAN:			
energia kontsumoa			
isurketa akustikoak, elektromagnetikoak eta beste sustantzia batzuk			
ekipamenduen materialaren osaketa			
paperaren eta tinten kontsumoarekin lotutako ezaugarriak. Ekipamenduek aukerra ematea: bi aldetatik inprimatzeko, orrialde bakoitzeko bi orrialde edo gehiago inprimatzea			
Ergonomia, ezintasunak dituzten pertsonentzako diseinu egokia			
Iraungarritasuna eta diseinua ekipamenduak eguneratzeko eta birziklatzeko			
BILGARRIEN ETA EKIPAMENDUEN KUDEAKETA HONDAKIN GISA EGITEN DA			

1.8. Emaitzak zein adierazleak neurtzea

Gaur egun ez dago ez lgorren eta ezta beste administrazioetan ere, EKPB-aren inguruko emaitzik eta EKPB-ko adierazlerik neurtzen eta planteatutako helburua 1. mailara iristea izango litzake.

0 maila:	Emaitzak ez dira neurtzen, eta ez dago EKPBen adierazlerik
1. maila: oinarrizkoa	Bada kontrolatzeko sistemarik/prozedurarik, oinarrizko EKPB irizpideak dituen, baina produktu/zerbitzu/jarduera talde jakin batzuentzat bakarrik. Zuzendarien aldetik ez dago konpromisorik, eta barneko auditoretzek ez dituzte ingurumenaren arloko alderdiak biltzen.
2. maila: aurreratua	Bada EKPB adierazleak dituen kontrol sistema/prozedura bat. Informazioa falta denez gero, ez dira adierazle guztiak kalkulatu, eta ez dira helburuak berrikusten. Argiak dira erantzukizunen egitura eta komunikaziorako bideak.

	Auditoretzek oinarrizko iraunkortasun irizpideak biltzen dituzte.
3. maila: bikaina	EKPB kontrolatzeko sistema/prozedura bat dago. Argiak dira erantzukizunen egitura eta komunikaziorako bideak. Zuzendariak konpromiso argia dute. Sarritan kalkulatzen dira EKPB adierazleak, prozesua ebaluatzen, eta helburu berriak ezartzen. Jende guztiaren eskura daude emaitzen auditoretzak.




■ Foru Aldundia eta hiriburuen abiapuntua
■ Foru Aldundia eta hiriburuen helburua 2008
□ Ekitaldean parte hartu duten udalerrien abiapuntua
□ Ekitaldean parte hartu duten udalerrien 2008 urterako helburua
■ Igorreko udalerrriaren abiapuntua

1.9. Hornitzaileen katea kudeatzeko modua

Igorren ez dago EKPB inguruan hornitzaileekin harremanik, erosketak/lizitazioak salbu. Ekitaldeko helburua 1 eta 2. maila bitartera iristea izango litzake.


0 maila:	Ez dago hornitzaileekin harremanik, erosketak/lizitazioak salbu.
1. maila: oinarrizkoa	Harreman informalak eta noizbehinkakoak baino ez dira izaten hornitzaileekin, beren produktuen/zerbitzuen ingurumen irizpideei buruz.
2. maila: aurreratua	Hornitzaileekin sistematikoki egiten dira EKPBri buruzko bilerak, produktu/zerbitzu talde garrantzitsuenen inguruan. Kontratazioa egin aurretik eta ondoren ebaluatzen da hornitzaileen eskaintza ingurumenaren ikuspuntutik.

3. maila: bikaina	Hornitzaileen zeregina funtsezkoa da erakundearen EKPB estrategian. Hornitzaileekin sistematikoki egiten dira EKPBr buruzko foroak. Sistematikoki ezartzen eta ebaluatzen da.
----------------------	---



1.10. Beste administrazio publiko eta erakunde batzuekin lan egitea eta lankidetzan aritzea, sareen bitartez EKPB sustatzeko.


0 maila:	Ez da inongo saretan parte hartzen.
1. maila: oinarrizkoa	Lankidetzeta eta komunikazio informala dago antzeko ezaugarriak dituzten erakundeekin
2. maila: aurreratua	Lankidetzeta hitzarmenak egiten dira antzeko ezaugarriak dituzten erakundeekin..
3. maila: bikaina	Lankidetzeta hitzarmenak egiten dira antzeko ezaugarriak dituzten erakundeekin. Erakundea eskualdeko, Estatuko eta nazioarteko instituzioetako kide da.



- Foru Aldundia eta hiriburuen abiapuntua
- Foru Aldundia eta hiriburuen helburua 2008
- Ekitaldean parte hartu duten udalerrien abiapuntua
- Ekitaldean parte hartu duten udalerrien 2008 urterako helburua
- Igorreko udalerriaren abiapuntua

2. ATALA. NOLA IKUSTEN DUTE HERRIA IKASLEEK? IBILBIDEA.

Inazio Zubizarreta ikastetxeko ikasleek abenduaren 9an irteera egin zuten herritik zehar eta hainbat gai landu zituzten ondoren agertzen den taulan laburtzen den bezala.



Egindako ibilbideak 4 etapa izan zituen eta etapa bakoitzean honako gaiak landu genituen:

ETAPA	LANDUTAKO GAIAK				IKASLEEN
	HOND.	URA.	ENER.	LURZ.ER.	MAILA
1. "ESKOLA INGURUA"			X		2 A
2. "ESKOLA ATZETIK POLIKIROLDEGIRA"	X				1 A
3. ESKOLATIK IBAIRA		X			1 B
3. "ZUBI INGURUA"				X	2 B

X: Gai hori landu da

Egindako ibilbidearen ondorioz herriko egoera zein den ikusi da eta zenbait proposamen prestatu dituzte:



Eskola inguruko argiteria

EGOERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Farola nahiko daude, baina batzuk kutsatzaileak dira.	Argiteri asko dago. Farola kutsakorrak aldatu eta gutxi kontsumitzen duten argiak jarri.



Eskola atzetik polikiroldegira. Hondakinak

EGOERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Materia organikoa botatzeko edukiontzia, beirarakoak, paperekoak, eta ontzientzako edukiontzia ikusi dira ibilbidean zehar kontserbazio egoera onean. Ez da pilen edukiontzirik ikusi. Papelera nahikoak ikusi dira eta egoera onean.	-
Zaborrak ikusi dira kalean (edukiontzi ondoan) polikiroldegi inguruan (gurpilak, sukaldeko tresnak, e.a.)	Zaborra bere lekuan sartu. Ontziak sarriago utzitu
Pintadak ere ikusi dira. Eskola txikian atzeko parteko horman. Eskola handian kanpoko horman ere bai.	



Eskolatik ibaira. Ura-ibaia

EGOERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Ibilbidetik zehar ez da ur ihesik ikusi, putzuak ikusi ditugu euria izan delako	

EGOERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
<p>4 iturri ikusi ditugu.</p> <p><u>Eskolako patioko</u> iturriak ur kopuru handia ateratzen du</p> <p><u>Polikiroldegiaren aurrean dagoen iturriaren</u> jarioa normala da</p> <p><u>Gimnasioaren ondoko iturritik</u> ere ur asko ateratzen da</p> <p><u>Ibai ondoko parkeko iturritik</u> ur gutxi irteten da.</p> <p>Lau iturrietan botoi bati sakatu behar zaio ura ateratzeko</p> <p>Ura ez da etengabe ateratzen ari.</p> <p>Ureztatzeko ahorik ez dugu ikusi.</p>	<p>Gure patioko iturria ur gutxiagoz hobeto egongo litzake.</p>
<p>Errekan ur asko dagoela ikusi dugu</p>	
<p>Errekako ura zikina dago, kolore marroia dauka.</p>	
<p>Errekako ura begiratzean hondakinak ikusi ditugu: plastikoak, kristala, egur zatiak, e.a..</p>	<p>Ibaiaren egoera hobetzeko hondakinak murriztu eta sortzen ditugunak egokitutako lekuetara bota behar ditugu</p>
<p>Errekara hurbiltzean usai txarrik ez dugu nabaritu.</p>	
<p>Errekara etxeetako ura heltzen da eta ez dugu estoldatik ikusi.</p>	
<p>Landaredia ere ikusi dugu: zuhaitzak, belarra, perretxikoak, e.a. animaliarik ordea ez dugu ikusi</p>	



Zubi inguruan. Lurraren erabilera



EGOERA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Gune Artifiziala da gehien ikusten dena.	Berdegune gehiago nahi ditugu.
Dauden berdeguneak egoera onean daude baina zikinegi dauden batzuk ere ikusi ditugu	
Gehien nagusitzen diren etxebizitza motak pisuak dira.	
Hegazti batzuk ikusi ditugu, landarediari dagokionean pinuak gehien	
Ez dugu espezie exotikorik ikusi, ezta poluiturik dauden Ilurzorurik ere.	

3. ATALA. IGORREKO BIZTANLERIAREN KONTSUMO OHITURAK. HERRITARREI GALDETEGIA.

Igorreko Institutoak eta Inazio Zubizarreta ikastetxeko ikasleek 75 herritarrei kontsumoaren inguruko hainbat galdera egin dizkiete eta horren ondorioak ondoren aurkezten dira:

Sexua			Adina			
<i>Gizonak</i>	<i>Emakumezkoak</i>	<i>Ez da zehaztu</i>	<i>19</i>	<i>20-45</i>	<i>45-65</i>	<i>65tik gora</i>
15	47	38	14	42	14	1
20%	63%	17%	18,60%	56%	18,60%	1,30%

Igorreko biztanleria elkarrizketatuaren ezaugarriak.



Ondoren egindako galderak eta erantzunen emaitzak aurkezten ditugu:

3.1. Elikaduraren inguruan

3.1.1. Kontuan hartzen dituzu jaten dituzun elikagaien jatorria?

Gehienek, konkretuki %76ak normalean bizi den inguruan produzitutako elikagaiak jaten dituela dio. %16ak ez diola jaramonik egiten kontsumitutako elikagaien jatorriari eta %7 batek kontsumitutako elikagai gehienak beste eskualde batzuetakoak direla dio.

3.1.2. Aurrez prestaturiko jakiak jaten dituzu normalean?

%01,30ak aurrez prestaturiko jakiak batzuetan erosteko ohitura dutela diote. Inoiz ez dituztenak erosten %28 dira eta ia beti erosten dituztenak erosoago direlako % 10,60a dira.

3.2. Erosketen inguruan

3.2.1. Non egiten dituzu erosketak normalean?

Erosketak egiterako garaian, %62,60ak supermerkatuetan egiten dituela dio, %34,60ak etxe ondoko denda txikietan eta merkataritza gunetan %21,30.

3.2.2. Behin bakarrik erabiltzeko produktuak erosten dituzu?


Behin bakarrik erabiltzeko produktuak batzuetan erosten dituztenak baina produktu jakin batzuetarako bakarrik % 57,3 dira, larrialdietan baino ez dituztenak erosten % 34,60 dira eta beti erosteko ohitura dutenak % 8. dira.

3.3. Eskura dagoen informazioa

3.3.1. Zure ustez zenbat informazio jasotzen duzu ingurumenaren aldetik egokia den kontsumoa egiteko?

Igorreko biztanleriaren gehiengoak (%73) uste du informazio asko edo dezente jasotzen duela ingurumenaren aldetik egokia den kontsumoa egiteko. Hala eta guztiz ere, herritarren %25ek kontrakoa dio, alegia mota horretako informazio gutxi edo batere ez duela. EAEko datuekin alderatuz (Ekobarometro soziala 2007), EAEko biztanleen %54ak uste du informazio asko edo dezente jasotzen duela, %45aren aurrean. Beraz esan daiteke, EAE mailan biztanleak antzeko pisua duten bi talde handitan banatzen diren bitartean: batetik kontsumo iraunkorra egiteko nahikoa informazioa dutela uste duten pertsonen taldea (%47) eta informazio gutxi dutela uste duena (%41), Igorren ez dago hain banatua biztanleria, gehienak %53 informazio nahikoa dagoela uste duelarik.

Grafikoa. Zure ustez zenbat informazio jasotzen duzu (asko, nahikoa, gutxi edo batere ez) ingurumenaren aldetik egokia den kontsumoa egiteko?



3.3.2. Kontsumo jakin batzuei buruz eskura dagoen informazioa

Elikagai ekologikoei eta erregai kontsumo baxuko ibilgailuei buruzko informazio defizita detektatu da.

Igorreko 10 pertsonatik 7ren ustez, jarduera hauek egiteko nahikoa informazioa dute:


- Garraio publikoa erabiltzea (%70,6)
- Energia elektrikoaren kontsumoa aurrezte (%78,6)
- Uraren kontsumoa aurrezte (%80)


Aldiz, herritarren portzentai altu bat (ez dena iristen erdira) uste dute ez dutela nahikoa informazio jarduera hauek egiteko:

- elikagai ekologikoak kontsumitzea (%43)
- Erregai kontsumo baxuko ibilgailuak erostea (41,4)

Grafikoen bitartez igorre eta Eneko Ekobarometro sozialaren emaitzak alderatuko ditugu.

Grafikoa. Zure ustez arlo hauei buruzko informazioa jasotzen duzu?






3.4. Ohituren aldaketa

3.4.1. Ingurumena gehiago errespetatzearren kontsumo ohitura batzuk aldatzeko prestasun maila

Datuen arabera, oro har, Igorretarren gehiengoa (%78) prest egongo litzake, ingurumena gehiago errespetatzearren, kontsumo ohitura batzuk aldatzeko. Horietatik %28 prestasun handia agertzen dute eta %60k nahiko handia.

Grafikoa: Oro har, zenbateraino egongo zinateke prest kontsumo ohiturak aldatzeko ingurumena gehiago errespetatzearren?



EAErekin alderatuz datuak antzekoak diren arren, EAE mailan prestasun maila gutxi eta batere ez dutenen portzentajea Igorrekoarena baino baxuagoa da.

3.4.2. Kontsumo jakin batzuetarako ohiturak aldatzeko prestatasuna



Datuen arabera, Igorreko herritar gehienak prest daude produktu eta zerbitzu jakin batzuekin dituzten kontsumo ohiturak aldatzeko, hala, ingurumena gehiago errespetatzeko:

- Herritarren % 88,6 prest legoke kontsumo ohiturak aldatzeko, eta etxeko energia elektrikoaren eta uraren kontsumoa aurrezteko.
- % 84 prest legoke garraio publikoa erabiltzeko ohiturak aldatzeko
- Hiru pertsonetatik bi prest leudeke oihiturak aldatu, eta kontsumo baxuko ibilgailuak erosteko; ehuneko berak elikagai ekologikoak kontsumituko lituzke.

Generoa kontua hartuta, mugikortasunarekin lotutako desberdintasunak nabaritzen dira:

- Ohiturak aldatzeaz galdetuta emakumeek prestasun handiago agertzen dute garraio publikoa erabiltzeko 9 puntu gehiago gizonak baino (%89 eta %80 hurrenez hurren). EAE mailan antzeko emaitzak lortu dira (%89 eta %79 hain zuzen ere)
- Emakumeek ere ohiturak aldatu, eta erregai kontsumo baxuko ibilgailuak erosteko prestasun handiagoa agertzen dute gizonetakoak baino. (%80 eta %66 hurrenez hurren). EAE mailan gizonak emakumeek baino 11 puntu gehiago dituzte %71 gizonak eta %60 emakumezkoak).

Grafikoa. Zure kontsumo ohiturak aldatzeko prest egongo zinateke helburu hauetako bat betetzeko?




3.5. Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuen eskuragarritasuna

3.5.1. Ingurumena gehiago errespetatzen duten produktuak eskuratzeko erraztasun maila

Herritarren %57,3aren ustetan oso erraza edo nahiko erraza da ingurumena errespetatzen duten produktuak aurkitzea, EAE mailan %31k diote dela erraza edo nahiko erraza. %44ak ordea uste du zaila dela edo ez dela batere erraza produktu horiek aurkitzea eta EAE mailan portzentaje hori %63a da. Datu hauekin esan daiteke, Igorren herritar gehienak kontsumo ohiturak aldatzeko prest egon arren, zati handi batek zailtasunak dituela produktu horiek aurkitzeko. EAE mailan zailtasuna duten pertsona horien ordezkapena Igorren baino askoz ere handiagoa da.



Grafikoa. Zure ustez, ingurumena gehien errspetatzen duten produktuak aurkitzea oso erraza da, nahiko erraza da, ez da erraza edo ez da batere erraza.



3.5.2. Produktu eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko erraztasuna.

Igorren, herritarren % 53,30 dio erraza egiten zaiola elektrizitatearen kontsumoa aurrezteko produktuak aurkitzea (kontsumo baxuko bonbillak adibidez), %56ek erraz aurkitzen dituzte garraio publikorako zerbitzu egokiak. Bestalde Igorretarren %62,60ren ustetan uraren kontsumoa aurreztea erraza da, % 50,60ak elikagai ekologikoak aurkitzea erraza dela diote eta % 38,60 batentzat erregai kontsumo baxuko ibilgailuak aurkitzea erraza da.

Grafikoa. Zure ustez, erraza da ala ez da erraza uraren kontsumoa eta energia elektrikoaren kontsumoa aurreztea eta garraio publikoko zerbitzu egokiak, elikagai ekologikoak eta kontsumo baxuko ibilgailuak aurkitzea?.




3.5.3. Produktuen etiketan ingurumenari egindako kalteari jarritako arreta

Igorren 10 pertsonetatik 4k arreta gutxi jartzen dio edo ez dio batere arretarik jartzen produktuen ingurumen inpaktuari buruzko etiketei, datua EAE mailan 10 pertsonetatik 7koa da.

Ekobarometro sozialarekin alderatuz, zera ikusten da:

Grafikoa. Zenbateraino begiratzen duzu erositako produktuek ingurumenean duten eraginari buruzko etiketaren bat ote duten?



Bilakaeraren ikuspegitik, produktuen ingurumen etiketari gutxitan edo inoiz ez begiratzen ez dieten pertsonen kopurua EAE mailan hasi egin da, Igorreko pertsonen portzentaia betiere baxuagoa da EAE mailako datuak baino. EAE mailan inoiz ere begiratzen ez duten pertsonen ehunekoaren hazkundera nabarmendu behar da, hala ere, Igorren portzentaia hiru aldiz txikiagoa da.